



« Ez bota bide publikoan »

**Hendaiako mediateka**

## 25 urtez mediateka ari-arian!

Horren kariatara, lantaldeak bete-betean ospatu nahiko luke!  
Baina ez bakar-bakarrik...  
**Zuekin baizik!**

Erabiltzaileekin, elkarteekin, era guztietako partaideekin... norbanakoekin eta kolektiboekin... Gertakarira lotu nahi zaituztegu, elkarrekin ospa dezagun **2017. urtea**: urte bizi-bizia partekatzeetan, trukaketetan eta jakin nahietan, elkarri so egiteko, nahiak bultzatzeko, gogoak inarrosteko eta sormena astintzeko.



# 25 urte hautsik hartu gabe !

**Hendaiako mediateka**

Labur erranik, ezagutzeko, atsegin hartzeko eta etorkizunerako bitaminaz betetzeko!

Topaketa anitz, jori eta eklektikoak, gustu guztientzakoak, etorriko zaizkigu ospakizun urte honi erritmoa ezartzera: erakusketak, ikuskizunak, topaketak, lantegiak, jokoak... Egile nola ikusle, zure zain gaituzu, bozkariatze hauetan parte har dezazun.

Tinko eutsi, **25 Urte hauek guztia garbitzeko adinako urak baitakartzate !**

### Hendaiako mediateka

Jaizkibel karrika, 4 - 64700 Hendaia

05 59 48 00 77

mediatheque@hendaye.com

mediatheque.hendaye.com



25 urte,  
hautsik hartu gabe !

## Zuri da... !

### Parteka! "Nik egin dut"

Yoga, flashmob, genealogia, musika, argazkilaritza, sukaldaritza, joskintza... Baduzu denbora-pasaren bat, gustuko abusagailu bat, dohain gorderen bat? Ezagutu nahi genuke, bai eta zu ere! Hartara, ekiozu eta erabiltzaileekin parteka zure tirria, arratsalde batez, entsegu bat eskainiz edo lantegi bat, erakusketa bat edo, solasalditxo publiko bat besterik gabea...

*(Harremanetarako eta hitzordua hartzeko mediatekara jo)*

### Saia! "Nire libizitza bizi ezazu"

Dekoratuaren gibelaldea ezagutu nahi? Zure mediatekaren barnebideetan ibili nahi? Gurekin batera, zenbait orenez, gure liburuzain egunak osatzen dituzten jardunetan ari zaitez !

*(Harremanetarako eta hitzordua hartzeko mediatekara jo)*

### Sortu! "Zure med' apain ezazu"

Hiruhileko bakoitzean, mediatekako aitzinalde berineztatua arte ekoizpen bitxiekin beteko zaigu, zuek eginik!

Horien egiteko, ororentzako lantegiak proposatuko dizkizuegu:

"Med-aren Book Face sarea" , "Post-it W'art", "Erratz buruak"...

*(Harremanetarako eta hitzordua hartzeko mediatekara jo)*

### Josta! "Blind musika testa"

Oro dakizu Metallicaz edo Beethovenez edota Radioheadetaz?

Blind test hau zuretzat eginik duzu!

Zatoz zure musika ezagutzak musikariekin zuzenean neurtzera, Lanetik Eginarekin lankidetzan.

*(Harremanetarako eta hitzordua hartzeko mediatekara jo)*

### Hendaiaiko mediateka

Jaizkibel karrika, 4 - 64700 Hendaia

05 59 48 00 77

mediateque@hendaye.com

mediateque.hendaye.com

## Gertakariak

### Irekitze ikuskizuna

"Ma bibliothèque", Le Téalalala konpainiarekin: ikuskizun bitxia, literaturazko bisita gidatu irringarri gisa, zure mediatekako ohiko lekuei begirada berria jaurtitzeko.

### Erakusketak

"Le monde à travers les albums": 35 herrialdeetako liburuzainek gustukoak dituzten gazte albumen esploratzeko.

"Merci, Manceau !": Edouard Manceau egile-irudigilearen unibertsoan murgiltzea

"Écume": dohain gordeak, so gurutzatuak... uda baten bitartean.

Bernard Baylaren argazkiak eta Serge Minguetenak, etab.

Christophe Paviak sortu soinekoen aurkezpena.

### Sorkuntza egonaldia

Zaz Rosnet mediatekan ukanen dugu, zuek eta guk, astebetetz "joskintza poetikoa" egiten...

### Saturday night fever

Arrats batez, mediatekako Audio gunea egiazko "diskoteka" bilakatuko da: musika, kantu arrakastatsuek, dancefloor, mirail anitzeko bola... Giroa segurtatua da !

### Urteburu eguna

Augustinerekin, bitaminez ase!

Gai diren Ondarearen Giden Frantziako Federazioko kide ofiziala da Augustine Picard eta "ikuskizun preziatu" labela duten lekuen bisitan eramanen gaitu, urteburu hitzaldi ustegabekoenetako bati ekin aitzin...

### Eta jarraian etorriko diren beste hainbat eta hainbat sorpresa...

Gertakariak ez galtzeko eta hilez hileko hitzorduen berri jasotzeko, 25 urte hauetako gure balearen ildoan surfea ezazu, helbide honetan: <http://mediateque.hendaye.com>.



25 urte,  
hautsik hartu gabe !